


txintxonga



2003ko urria- 6. alea

AMOROTO ESKOLAKO ALDIZKARIA

ESKOLAKO EKINTZAK

IKASTURTE BERRIA.

Irailaren 8an eskolara etorri ginen eta gero Gurutz, Martzel eta Josuren pilota partidua ikusten joan ginen Gizaburuagara.



Irailaren 9an pirata etorri zen eta joku eta ipuin berriak aurkeztu zizkigun. Eskolara bi irakasle berri etorri dira bat gorputz hezkuntzakoa, eta bestea kontsultorea.

URRIKO BERRIAK

Urriaren 8an Urkiolako parke naturalera joango gara.

Urriaren 9an katxalin pirata dator altxorra eramatera.

HERRIKO BERRIAK

Urriaren 26an Mutrikuko "Goizeko izarra" taldea etorriko da Amoro-rotora. 18:00etan hasiko da. Umorezko eta beldurrezkoa izango da.

Haurtzaindegia egin ahal izateko urrian Amorotoko udalak eta Eusko Jaurlaritzak haur eskolako partzuergoa eratuko dute.



Herriko ludoteka eta biblioteka zabalduko dira irailaren amaieran.

Urtero bezala herriko bideen konponketa egingo da. Aurten Belakolako bidean Anitxu baserriaren gaineko zatia konponduko da.

HERRIKO BERRIAK

SANTA EUFEMI

Urtero bezala Santa Eufemi eguna irailaren 16an izan da eta hurrengo domekan ospatzen da.

Amorototik, pila bat pertsona oinez joaten da eta irteera 8:30 edo 9:00 etan izango da.

URA ZAINDU BEHARRA

Aurtengo udan ur gutxi egon da, ziketa dela eta. Hurrengoan ur gehiago edukitzeko, udalak neurriren batzuk hartuko ditu.

Bakoitzak ura aurrezteko zer egin pentsatu behar dugu.



SAN MIGUEL

Irailaren 29an San Miguel eguna ospatzen da Amoro-rotan. Meza emango du herriko abadeak Amorotoko ermitan. Gai-letak banatuko dira.

JAIOTZA

Irailaren 12an Liherran arba Malen jaio da.



ZORIONAK

MARTZEL IRAILAK 8

GARAZI IRAILAK 17

AITOR URRIAK 1

NERE ETA JOSU URRIAK 9

AIERT URRIAK 31



I
K
A
S
T
U
R
D
I
E
B
E
R
D
I
A

ONCI ETORRI !!

